

**Audioaren erreferentzia:** Bagoaz A2E08i *Zer lore aukeratuko ditut?*

**Maila:** A2

**Helburua:** Gelako ikaskide bati oparia egitea.

**Funtzioak:** Proposamen bati buruz iritzia eskatzea eta ematea. Eskerrak ematea.

**Azken jarduera:** Egokitu zaion gelako ikaskide bati oparia egitea. Binaka oparia adostea proposamenak eginez, eta oparia jasotakoan eskerrak edo harridura adieraztea.

**Adierazpide linguistikoak:**

- Zertarako
- Norentzat: Pertsona-izenekin: Mikelentzat, Edurnerentzat
- Baldintzako perpausak: errealak. (baldin) ba- (*zer pentsatuko du hori oparitzen badiot*)
- *Harridura eta esker ona adierazteko esaldiak: Hau sorpresa!, Asko estimatzen dizuet*
- Lexikoa: oparietakoak: loreak, musika, liburuak,

## 1. ENTZUN AURRETIK

Geroago entzungo duten audioan loreak eta opariak aipatzen direnez, horien inguruan jardungo dugu sarrerako atal honetan. Lehendabizi, loreen gaineko hiztegia landuko dugu. Ondoren, zein dituzten gustuko, eta oparitzeko zein aukeratuko luketen galdetzen zaie ikasleei. Jarduera horiek binaka egingo dituzte eta, azkenik, talde osoaren aurrean komenta daitezke.

Atal hau bukatzeko, gero entzungo duten audioaren gaineko hipotesia egiteko eskatuko diegu ikasleei; audioa entzuten dutenean argituko dute puntu hori; alegia, loreak norentzat diren (Amaiarentzat edo, adibidez, Josuren Lide andregaiarentzat diren.)



Erantzuna: **Amaiarentzat**



## 2. ENTZUN BITARTEAN

Audioko mezua ondo ulertu duten erreparatzeko tartea. Hasieran bakarka eta gero bikoteka adostu behar dituzte erantzunak. Zuk baloratu zenbat aldiz entzun behar duten audioa, osorik edo zatika.

Erantzunak: **1-b, 2-a, 3-c, 4-b, 5-c**




### 3. ENTZUN ONDOREN

  Zer lore oparitu dela-eta, proposamenak ageri dira audioan etengabe, eta horien aurrean onartu ala ez erabaki beharra. Horren harira, eskatuko diegu ikasleei taula osatzeko; bertan, bete behar dituzte “ez onartzeko” eta “zalantza adierazteko” audioan ageri diren esapideak. Baiezkorik audioan esaten ez dutenez, taulan jarrita ageri da. Ariketa hori egiteko, transkripzioari errepara diezaiokete.

  Jarri arreta ariketan baldintza errealetan fokalizatu dugu; baldintzak, proposamenak egiteko erabiltzeko. Azalpen labur baten ondoren, ariketa bat daukate baldintzako esaldiak praktikatzeko; kasu honetan, baldintzako esaldietan aditza jokatu egin behar dute; ondoren, dagokien ondoriozko esaldiekin lotu.


Erantzunak:

- Zure urtebetetzea (baldin) bada, zorionak.
- Zu gehiago hurbiltzen (baldin) bazara, hobeto ikusiko duzu.
- Guk irakasleari kolonia erregalitzen (baldin) badiogu, ez al da haserretuko?
- Eguraldi txarra egiten (baldin) badu, ez naiz aterako.
- Nik zuri kontutxo bat esaten (baldin) badizut, ez diozu inori kontatuko?
- Sano jaten badugu, urte gehiago biziko gara.
- Elurra egiten badu, lagunak eskiatzera joango dira.
- Kexatzen ez baldin bagara, ez digute kasurik egingo.
- Zuek kirola egiten (baldin) baduzue, sano egongo zarete.

   3.3, azken jardueran oparien inguruan jardungo dute. Elkarri opariak egingo dizkiote: bikote batek beste bikote bati egingo dizkio opariak (pertsonako opari bat). Orduan, kontua da zer opari egin proposatu eta eztabaidatzea arrazoiak emanez eta, azkenik, oparia entregatu; oparia jasotakoan adierazi egin behar dute harridura, sorpresa....

**Prozedura:**

1. Ikasleek binaka jardungo dute. Irakasleak esango die nori egin behar dieten oparia (hartara, denek oparia jasotzeko).
2. Binaka pentsatu dezatela, geroxeago elkartuko diren bikoteko kide bakoitzari zer opari egin. Horretarako, aurretik landu dugun proposamenen ingurukoa kontuan hartuta, zer oparitu proposatu eta eztabaidatu behar dute bikotean, ados jarri arte. Azkenean, fitxa batean idatzi behar dute: oparia, arrazoiak eta norentzat den. Bukaeran zuk jaso egingo dituzu fitxa horiek.
3. Bikote bat beste batekin elkartuko da (hain justu ere, elkarri opariak egingo dizkietenak), eta oparien berri emango diote elkarri. Oparia jasotzean, harridura, poza, ezustea.. adierazteko esango diegu; horretarako, daukate taulatxo batean zer espresio erabili ohi diren holakoetan. Espresio horiek landu daitezke aurretik: begiratu espresioei, osatu taula. Eman garrantzia intonazioari: *Portatu zarete!...*

 4. Bukatzeko, jaso itzazu bikote guztien fitxak. Talde osoari galdetu ea asmatzen duten opari bakoitza norentzat den. Horretarako, jakina, inplikatuak (opari-egile nahiz jasotzaileek) ez dezatela ezer

esan; fitxan ageri diren datuekin (oparia eta arrazoiak) saiatu behar dute asmatzen norentzat izan ote daitekeen (nahi izatera, arreta jar daiteke 'norentzat' deklinabidea ondo erabiltzen duten):

- *David Bowieren CDa. Norentzat dela uste duzue?*
- + *lñakirentzat, oso musikazalea baita.*
- *Ba, ez, ez da lñakirentzat. / Asmatu duzu.*

## AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Egun on!

BASERRITARRA.— Egun on, bai. Gaur ere erosketak egitera?

JOSU.— Bai, azkenean gustatu egingo zait plazara etortzea.

BASERRITARRA.— Zer nahi duzu ba?

JOSU.— Ba begira: aurreko batean lagun batekin etorri nintzen eta ikusi nuen loreak ere saltzen dituzula.

BASERRITARRA.— Bai, eta ederrak, gainera. Nahi baduzu oparitzeko, edo nahi baduzu loreontzian landatzeko.

JOSU.— Ez, nik oparitzeko nahi ditut.

BASERRITARRA.— Zer lore nahi duzu?

JOSU.— Ba... gogoratzen zara neska batekin etorri nintzela?

BASERRITARRA.— Bai, bai. Neska ederra benetan.

JOSU.— Bueno, ba harentzat.

BASERRITARRA.— Zer?, arrosa gorriak dozena bat?

JOSU.— Ez, ez, ez. Hori gehiegi izango da!

BASERRITARRA.— Margarita batzuk, beharbada? Kolore askotakoak ditut.

JOSU.— Ez! Horiek umeentzat dira, ezta?

BASERRITARRA.— Orkidea bat?

JOSU.— Ez! Zer pentsatuko du orkidea bat eramaten badiot?

BASERRITARRA.— Aizu, gazte, zuk ba al dakizu zer sentitzen duzun neska horrengatik?

JOSU.— Nik? Bai, adiskideak gara.

BASERRITARRA.— Adiskideak? Orduan, krabelinak.

JOSU.— Bueno, akaso bai.

BASERRITARRA.— Ez zaude seguru, ezta? Ez dakizu zer lore oparitu.

JOSU.— Ez.

BASERRITARRA.— Ba orduan, zoaz etxera. Pentsatu neska hori zer den zuretzat eta, hori argi duzunean, bueltatu hona eta bion artean erabakiko dugu zer lore oparitu, bale? Hurrengoa, mesedez!